



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

## 95. INFORMAZIO BULETINA

> 2014ko Abendua



GIPUZKOA



## NABARMENDU BEHARREKOA

### > i-Sare, Gipuzkoako mikro sare elektriko adimentsua, aurkeztu dute

Abenduaren erdialdean aurkeztu zuten ofizialki "i-Sare Microgrid Gipuzkoa", Gipuzkoako lehen mikro sare elektriko adimentsua (smart grid). Egoitza Donostiako Enertic eraikinean du eta nazioarteko sare elektrikoen inguruko irtenbide aurreratuak garatzeko eta sektore horretako enpresak sendotzeko oinarritzko bihurtuko den azpiegitura esperimental da.

Abian jarri ahal izateko, guztira, 7 milioi euroko inbertsioa egin da eta honako hauek finantzatu dute elkarrekin: Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskadiko EGEF Programa Operatiboak (2007-2013) eta proiektuan parte hartu duten enpresek eta zentro teknologikoek.

i-Sare Estatuko lehen mikro sare esperimental operatiboa da eta 400 kW-ko potentzia du. Sortze eta biltegitate elektriko teknologien eragingarritasuna eta bideragarritasuna garatu eta esperimentatzeko entsegu-banku gisa erabiliko dute. Horrekin lotuta, hori abian jarri izana sektoreko Euskadiko enpresetarako baliagarria izango da epe laburrera, ertainera eta luzera begira produktu, ekipo eta zerbitzu berriak garatzeko plataforma gisa ondoren merkaturatu ahal izateko. Horri esker, nazioarteko posizionamendua lortzen, gaitasunak hobetzen, enplegua sortzen eta negozio-lerro berriak irekitzen lagunduko du.

Energia modu eragingarrian kudeatzen duenez, baliabideak optimizatuta eta energia modu automatizatuan eta adimentsuan banatuta, i-Sarek energia aurrezten laguntzen du kostuak gutxituta (azpiegiturak optimizatuta) eta sistemaren fidagarritasuna areagotuta. Era berean, erabilera horren helburua jatorri berriztagarriko teknologien erabilera bultzatzea da negutegi-efektuko gasen igorpenak gutxituta eta ingurumen-inpaktua murriztuta etorkizuneko "Smart Grid" sare elektrikoen funtzionamenduan.

iSare proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiak zuzendu du honako hauekin elkarlanean: Euskadiko Elektronika, Informatika eta Telekomunikazioen Klusterra (GAIA-TEIC Klusterra), IK4 Research Alliance, Jema Energy, Cegasa Internacional, Electro TAZ, Ingesea, Oasa Transformadores, IK4-Cidetec eta IK4-Tekniker. Gainera, bazkide laguntzaileak dira Ceit-IK4, Donostia Sustapena eta Iberdrola.

*Informazio gehiago:*

<http://www.i-sare.net/>

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2014-05%20Jardunbide%20egokia%20iSare.pdf>



### > Sari-banaketa Erasmuseko ikasleei beren harrera-herrialdeetako ekimen berritzaileak Gipuzkoara ekartzeagatik

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Altuna Fundazioak eta Kutxa Fundazioak banatu dituzte Gipuzkoako unibertsitateko ikasleek atzerrian egindako ikasketen bidez eskuratutako ideietan eta esperientzietan oinarrituta, Gipuzkoako bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten proiektuak saritzen dituzten urteroko sariak.

Iaz, Gipuzkoako 53 ikaslek aurkeztu zituzten beren proposamenak Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak, Altuna Fundazioak eta Kutxa Fundazioak bultzatutako programarako. Horietatik, aurre-hautaketa egin eta 22 ikasle geratu ziren. Epaimahaiak 5 aukeratu ditu. Bakoitzak 2.000 euro jasoko ditu.

Saridunak eta ekarpenak honako hauek izan dira:

- **Eneritz Lizaso Alcibar.** Gazteen elikadura eta kirol arloko ohiturak hobetzeko programa. Osasunaren eta heziketa integralaren logika eta ohitura horiek horren sendotuta ez dauden segmentuetarako bereziki erakargarria den planteamendua hartzen ditu oinarritzat.
- **Jon Agirre Horno.** Gaitasun kritikoak eta arrazoiketakoak garatzeko prozesuan osagarri izango diren filosofiari buruzko tailerrak haurrei eta gazteei zuzenduta.
- **Alejandro Vea Sanz.** Gipuzkoako enpresen eta unibertsitateko truke-programetan atzerrian dauden ikasleen arteko harremanetarako gune bihurtuko den web-plataforma.
- **Xabat Mendia Lasa.** Garraio publikoari buruzko informazioa hobetzea horren erabilera bultzatzeko hobekuntza esparru gisa, garraio-sarea zabala dela eta ordainketa-bitartekoen integrazioa errealitate bihurtu dela kontuan izanda.
- **Edurne Izagirre Elizaran.** Komunitate mailako ikaskuntzako ekimena. Kasu honetan, arkitektura esparrura aplikatuta dago, "Public School" mugimenduaren ildo berean. Horren helburua gure gizarteko ezagutza-eskaerak eta hezkuntza-sistemak estali ezin dituen eskaerak asebetetzea da.

Informazio gehiago:

[http://www.euki.org/altuning\\_gipuzkoa/](http://www.euki.org/altuning_gipuzkoa/)

[http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1932/diputacion-kutxa-y-fundacion-altuning-premian-estudiantes-erasmus-trasladar-gipuzkoa-iniciativas-novedosas-sus-paises-acogida&anti\\_cache=1419414502661](http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/1932/diputacion-kutxa-y-fundacion-altuning-premian-estudiantes-erasmus-trasladar-gipuzkoa-iniciativas-novedosas-sus-paises-acogida&anti_cache=1419414502661)



### > Akitania-Euskadi Euroeskualdeko 2014-2020 Plan Estrategikoa aurkeztu dute

AECT Akitania-Euskadi Euroeskualdeak abenduaren 19an aurkeztu zuen Hendaian, Euroeskualdearen egoitzan, 2014-2020 Akitania-Euskadi Euroeskualdeko Plan Estrategikoa.

2014-2020 Akitania-Euskadi Euroeskualdeko Plana Euskadiko eta Akitaniako gobernuek lankidetzako beste eragile batzuen partaidetzarekin egindako lanaren emaitza da. Horrek finkatzen ditu Akitania-Euskadi Euroeskualdeko lehentasunak hurrengo urteotarako bi lurralde horien posizioa eta eragina sendotu ahal izateko asmoz Europar Batasuneko esparru erabakigarrietan. Horrez gain, badu beste helburu bat ere: euroeskualdea posizionatzea mugaz gaindiko lankidetzaren dinamizatzeko eta esparru horren inguruko proiektuak eta ekimenak bultzatzeko lanean eragile esanguratsu gisa.

Aurkezpen-ekitaldian izan ziren Iñigo Urkullu lehendakaria eta Alain Rousset, Eskualdeko Kontseiluko presidentea. Haiek aurkeztu zituzten Plan berriaren ardatzak eta lehentasunak eta hurrengo urteotan bideratu beharreko ekimenak eta jarduerak.

Zehazki, Planak Euroeskualdeko lankidetzari bultzada berria eman ahal izateko landu beharreko ardatzak eta ekintzak identifikatzen ditu esparru hauekin lotuta: eleaniztasuna, euskararen garapena, gazteen mugigarritasuna, Euroeskualdeko campusa, klusterren baitako enpresa-lankidetzaren, Euroeskualdeko enplegua, garraioa, energia berriztagarriak edo gobernantza irekia.

*Informazio gehiago:*

<http://www.aquitaine-euskadi.eu/blog/2014/12/18/akitania-euskadi-euroeskualdearen-plan-estrategikoa-2014-2020.html>



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas



ETA EUROPAR BATASUNA

> 2014ko Abendua

## KOHESIO-POLITIKA

### > Eskualdeen Batzordeak ohartarazi duenez, zor publikoarekin lotutako betebeharrak arriskuan jarri dituzte tokiko baliabideak

Europako Eskualdeen Batzordearen 2020 Europa Estrategiaren Jarraipen Plataformak egindako azken inkestako emaitzek agerian utzi dutenez, eskualdeen eta hirien zati handi bat beldur da defizit publikoarekin lotutako Europako neurriek toki mailako inbertsioetan inpaktu negatiboa izango duela.

Inkesta horren arabera (tokiko eta eskualdeko erakundeek, eta zentro akademikoek eta ikerkuntzakoek hartu dute parte), % 68ren ustez, Europako Egitura eta Inbertsio Funtsek estaltzen dute inbertsio publiko guztien erdia edo gehiago. Bestalde, inkestari erantzundako % 89ren ustez, arriskutsua da gobernu nazionalak zorraren maila orekatu behar izatea, horrek nazioz azpiko transferentziak mugatzen baititu. Horrez gain, % 91k arriskuak detektatu ditu berezko baliabideak murriztuz gero bere eskualdearen edo hiriaren egoera ekonomikoa dela eta. Inkestari erantzundako % 69ren ustez, Estatu mailako finantzaketa publikoa murrizteak eragin handia izango du eskualde mailako enplegu-sorkuntzan eta hazkundean.

Inkestaren helburua tokiko eta eskualdeetako erakundeek 2014-2020ko Europako Egitura eta Inbertsio Funtzen programen eta proiektuen nazio mailako finantzaketa maila txikiekin lotuta bizi zuten arazoaren inguruan zuten iritzia ezagutzea zen. Izan ere, finantzaketa hori sartuta dago Egonkortasuneko eta Hazkundeko Itunak finkatutako gehieneko aurrekontu-mugetan.

*Informazio gehiago:*

<http://www.cor.europa.eu/es/news/Pages/debt-obligations-are-likely1216-7877.aspx>



### > **STANDAR, tresna berria EGIFen genero-berdintasun handiagoa lortzeko**

GenderCoPek, Genero mailako Mainstreaming-aren Europako Sareak, STANDAR aurkeztu du. Tresna berri horren xedea kide diren estatuei 2014-2020 aldian Europako Gizarte Funtsaren (EGIF) Araudi berria betetzen laguntzea da; izan ere, araudi berriak genero-berdintasuneko helburuak lortzea eskatzen du ikuspegi bikoitzetik: zeharkakotasunean zein ekintza zehatzetan.

STANDAR tresnak, gida gisa, EGIFen ziklo guztietan genero-berdintasuna lortzeko moduari buruzko jardunbide egokiak eta baldintza argiak eskaintzen ditu. Proiektuen fase guztietan (plangintza, programazioa, jarraipena eta ebaluazioaren ezarpena) berdintasun-helburuak lortzeko garatu beharreko prozedurak ulertzea eta monitorizatzea ahalbidetzen duten adibideak eta jardunbide egokiak jasotzen ditu.

GenderCoP Europako Gizarte Funtsak finantzatzen du besteak beste eta kide diren 13 estatutako EGIFeko Kudeaketa Agintariek eta Erakunde Bitartekariak osatzen dute.

*Informazio gehiago:*

<http://www.gendercop.com/>

<http://standard.gendercop.com/>



## EUROPA 2020 ESTRATEGIA

### > Eusko Jaurlaritzak 2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana, "Euskadiko RIS3", onartu du

Eusko Jaurlaritzak "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana – Euskadi PCTI 2020", onartu du. Espezializazio adimentsuko estrategia horren bidez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko garapen ekonomikoa eta iraunkorra bultzatu nahi du 2014-2020 Europako programazio-aldi berriaren baitan. Euskadi PCTI prestatzeko erreferentzia-markoa izan dira 2020 Europa Estrategia eta RIS3 Estrategia

Onartutako Plana Eusko Jaurlaritzaren sailen arteko lankidetzaren eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Kontseiluan ordezkartza duten eragileen (foru-aldundiak, Euskadiko hiru unibertsitateak, Tecnalia eta IKT4, enpresa-ordezkarriak, Jakiunde, Innobasque eta Ikerbasque) arteko partaidetza-prozesuaren emaitza izan da. Gainera, zientzia, berrikuntza eta ikerketa arloetako Europako eragileen eta adituen ekarpenak ere jaso ditu.

Zehazki, Euskadi PCTI 2020k hiru lehentasun estrategiko finkatu ditu: Energia (elektrizitatea, petrolioia, gasa eta energia berriztagarriak), fabrikazio aurreratua (aeronautika, automobilgintza, ontzigintza eta trenen arloa, makina-erreminta, ekipamendu-ondasunak eta metalgintza), biozientziak eta osasuna.

PCTI 2020k hiru lehentasun horiek lau esparrutan edo aukerako "lurraldetan" garatzearen aldeko apustua egin du. Zehazki, honako hauetan: iraunkortasunari eta giza inguruneari lotuago dagoen nekazaritzako elikagaien industria; lurralde mailako plangintza eta hiri-birsorkuntza; aisialdia, entretenimendua eta kultura; eta, azkenik, ekosistemekin lotutako jarduera espezifikoak.

Hitz gutxitan esanda, hauek dira PCTI 2020ren 4 ildo estrategikoak:

1. Espezializazio adimentsuko estrategia bultzatzea zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren bidez Euskadiko erronka sozialei erantzuna eman ahal izateko.
2. Industria mailako lidergoa sendotzea lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez.
3. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren sistemaren bikaintasuna areagotzea.
4. Giza kapitalaren garapena bermatzea zientzia, teknologia eta berrikuntza arloetan.

Planaren finantzaketari dagokionez, PCTI 2020k 2014 eta 2020 artean 11.100 milioi euroko inbertsio publiko-pribatua egitea aurrez ikusi du. Zenbateko horretatik, inbertsioaren heren bat, gutxi gorabehera, 3.677 milioi euro, administrazio publikoek beren gain hartuko dute. Aurrekontuaren % 60 enpresek jarriko dute ikerkuntzako eta enpresa-berrikuntzako proiektuak finantzatzeko. Gainerako zenbatekoa (814 milioi euro) Europako funtsen bidez eta enpresa multinazionalak Euskadin egindako I+G arloko proiektuak erakarrita finantzatu da. Beste nolabait esanda, PCTI 2020ren helburua 2014-2020 aldian I+G+ b arloko inbertsio publiko-pribatua % 44 handitzea da.

Informazio gehiago:

[http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5621/PCTI\\_Euskadi\\_2020\\_eu.pdf?1418907220](http://www.irekia.euskadi.net/uploads/attachments/5621/PCTI_Euskadi_2020_eu.pdf?1418907220)



### > Europako eskualde berritzaileenei zuzendutako RegioStars sarien edizio berria abian da

Europako Batzordearen Eskualdeko eta Hiriko Politikarako Zuzendaritza Nagusiak bultzatutako RegioStars sarien helburua eskualde-garapenerako jardunbide egokiei aitorpena egitea eta beste eskualdeentzako eredu bihur litezkeen proiektu original eta inspiratzaileak nabarmentzea da.

Aurreko urteetan bezalaxe, sariak Europar Batasuneko kohesio-politikari esker finantzatutako Europako proiektuei emango dizkiete.

Aurtengo edizioko sarietarako kategoriak dira hauek:

- **Hazkunde adimentsua:** ETE-en hazkunde-potentziala askatzea ekonomia digitalerako.
- **Hazkunde iraunkorra:** Energia-eragingarritasuneko inbertsioak mobilizatzea herritarren eta gizartearen mesedetan.
- **Hazkunde integratzailea:** Txirotasuna edo bazterkeria soziala jasateko arriskuan dauden biztanleak gizarteratzea.
- **CITYSTAR:** Hiriak etorkizuneko erronketarako eraldatzea.

RegioStars sarietarako 2015eko edizioan parte hartzeko eskaerak 2015eko otsailaren 28ra arte aurkez daitezke. Sari-banaketako ekitaldia Bruselan egingo dute 2015eko urriaren 14an ate irekien jardunaldiaren baitan.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/projects/regiostars/regiostars\\_en.cfm](http://ec.europa.eu/regional_policy/projects/regiostars/regiostars_en.cfm)





### DOKUMENTU INTERESGARRIAK

#### > Egitura eta Inbertsio Funtzen eta Europako beste finantzaketa-tresna batzuen onuradunentzako gida (Europako Batzordea)

Gida horrek azaltzen du Europako Egitura eta Inbertsio Funtsetara sartzeko eta horiek erabiltzeko modua. Gainera, Europako beste finantzaketa-tresna batzuekiko osagarritasuna ustiatzeko modua ere azaltzen da.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/guides/synergy/synergies\\_beneficiaries.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/guides/synergy/synergies_beneficiaries.pdf)

#### > Europako Batzorde berriak kargua hartu du (Panorama aldizkaria, 51. alea)

Panorama aldizkariaren neguko edizioaren gai nagusia Europako Batzorde berria da eta Eskualdeko Politikarako komisario berriari, Corina Cretu-ri, egindako elkarrizketa biltzen du. Bertan, hurrengo urteotarako eskualdeko politika garatzearekin lotutako bere ikuspegia azaldu du.

Horrez gain, aldizkariak beste artikulua batzuk ere jasotzen ditu; gai hauei buruzkoak, adibidez: Kohesio Politikak klima-aldaketaren eta energia-segurtasunaren erronkei aurre egiten nola laguntzen duen karbono-igorpen baxuko ekonomian inbertsioa eginda; EBko kide diren estatuei Europako Egitura eta Inbertsio Funtzak kudeatzeko administrazio-gaitasuna hobetzen laguntzeko Europako Batzordeak abian jarri dituen ekimenak eta abar. Maila anitzeko gobernantzari eta lankidetzari buruzko "Van den Brande" txostena ere aldizkarian landutako gaien artean dago.

*Informazio gehiago:*

[http://ec.europa.eu/regional\\_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag51/mag51\\_en.pdf](http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag51/mag51_en.pdf)